



> Urdaibai Bird Center, gaurtik zabalik



Urdaibai Bird Center

Ez dira hilabete errazak izan naturarekin gozatzeari begira-ko proiektuentzat. Hala ere, Urdaibai Bird Centerren pozik egoteko sobera arrazoi dituzte. Zentroa itxita egon bada ere, paduretan kokatutako kamerek



jasotzen dituzten zuzeneko irudiak eskaini ahal izan dizkiote publikoari webgunearen bitartez, eta 180.000 bisitatik gora izan dituzte. Toki askotako konexioak izan dituzte, baina Katalunia,

Madril eta Bilbo Handiko bizi-lagunak izan dira «jarraitzaile fidelenak», ohar batean zehaztu dutenez. Argi dagoena da irudi eder horiek konfinamendu gogorreko egunetan gozagarri izan direla lagun askorentzat, eta ahalegin handia eskatzen duen egitasmoarekin jarraitzeko asmoa agertu dute. Hala ere, zentroak aurrez aurreko bisitak berreskuratu behar ditu, eta iragarri dute segurtasun neurri eta protokolo guztiekin egingo dutela irekiera. Irekierak berrikuntza bat dakar: «Urdaibaiko Erreserbak dituen zenbait mirari» biltzen dituen «erakusketa harrigarri» bat. Aurreratu dutenez, «hegaztiak ez ezik, erreserbak eskaintzen duen biodibertsitatearen adibide paregabeak» erakutsiko ditu ekimen berriak. Besteak beste, «Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen mokoabalak, gortetzen dabil-tzan arrano arrantzaleak, paduran ugaltzen ari diren zankaluze dotoreak eta egunero inguruan dabilen azeri bat» aurkituko dituzte bisitariak.



> «Erribera» eta «Agur Jaunak», Iruñeko Orfeoia Sadarri

Ehun urtetsuko bi erakunde, Iruñeko Orfeoia eta Osasuna, ohi ez bezalako kontzertu batean elkartu dira asteon, Sadar zaharrari azken agurra egiteko. Irudiak Iruñeko abesbatza-ren musika bezain hunkigarriak dira. Ezohiko agertoki berezi horretan, Iruñeko Orfeoia kontzertu berezia eman du, dis-



tantziak eta maskarak direla eta. Ordu erdiz, Orfeoia abesti herrikoiak interpretatu ditu, hala nola «Agur Jaunak» eta «Erribera». Gorritxo klubeko zuzendaritzak bakarrik ikusi ahal izan du zuzenean kontzertua, baina Osasunak zabaldutako bideoa memorian eta historian grabatuta geratuko da.



> Arrakala teknologiko sexista samurtzeko bekak

Bigarren urtez segidan, Sarra- lle industria-ingeniaritza tal- deak Sarraile Grow izeneko beka programa abiatu du da- torren ikasturtean unibertsit- ate ikasketak zientzien ada- rretan egitekoak diren emakumeentzat. EAEn bizi eta 18 eta 25 urte bitartean izan behar dituzte bekak es- kuratu ahal izateko. Ikasturte bakoitzeko 1.000 eurokoak dira laguntza horiek.



Programa horrekin gizonen eta emakumeen arteko arraka- la teknologikoa txikiagotu nahi du Sarrailek. Gaur egun, lau emakumetik batek soilik hautatzen ditu unibertsitate ikasketa zientifikoak. Sektore horietan emakumeen jarduera tasa gizonena baino askoz apa- lagoa da, askotariko arrazoi kultural eta sozialak direla eta; halaber, postu kaskarragoak izaten dituzte.

> «Los Angeles Times», Centro Basco euskal jatetxeaz

Koronabirusaren krisia dela eta, Chino hiriko jatetxe honek atek zabaltzen ezin jarraitzen zuen duela egun batzuk, era- mateko zerbitzua baizik ezin baitu egin. 1940az geroztik za- balik, Behe Nafarroako jatorria duen Berterretche-Helton fa- miliak 1970tik aurrera darama Centro Basco, hiriko jatetxerik zaharrena. “Los Angeles Times” egunkarian, Patricia Escarcega gastronomia kritikariak idatzi du Kaliforniako Chino hiriko Centro Basco euskal jatetxea-



ren etorkizun ilunari buruz, ko- ronabirusaren krisiaren ostean aurrera ateratzeko modurik izango ote duen ala ez zalan- tzaz josita. Aste Santuko Dome- kako afaria bertan behera laga zuen euskal jatetxeak, 1940an atea ireki ostean lehen aldiz. «Gugana sarritan eta aspalditik datozen horientzat etsigarria suertatu zen afaria bertan be- hera geratzen zela jakitea», dio Bernadette Heltonen, bere anaia Joseph Berterretcherekin batera euskal jatetxeko buruak.



> Maialen Gurbindo nafarra, «OT» telebista saiotik kanpo

Finalean sartzeko zorian zego- en Maialen Gurbindo musikari nafarra. Hala ere, *Chica Sobre- salto* izen artistikoarekin etor- kizun oparoa izango duela pen- tsa daiteke, publikoak oso gustuko baitu eta disko berria prestatzen ari baita. Anne aka- demiako ikaskidearekin batera Operación Triunfo saioan eus- kara defenditzeagatik pasako



da historiara. Izan ere, aurtengo edizioa hastean bi euskal- dun zeuden, Anne Lukin eta Maialen Gurbindo nafarrak, eta elkarrekin jarri zituztenean, Ken Zazpiren “Ilargia” abestia kantatzea eskatu zuten, euska- raz kantatzea zenbat gustatuko litzaiekeen adierazita. Saioa sortu zenetik euskaraz kanta- tzen zen lehen aldia izan zen.